

Zer ari gera idazten?

Zeruko Argia, 351. zk., 1969-11-23: 7.

Erri bateko kultura lanetan idazleak ba dute bere eginkizun berezia; ba daude itz-bidez egiten ez diren beste kultura ibilbideak; eskultura, pintura, zinea, musika, batez ere; ala ta guztiz esango nuke itza bidetzat dutenak: nobela, ipuia, olertia, saiaketa, antzerkia, direla errexen eta zuzenen bere esan-naia adierazten dutenak; arte-bide bakoitzak ba du bere errextasun berezia ta bere zailtasuna, bere ona ta bere kaltea, bere sakontasun neurria ere bai; bañan esan genezake erri baten kulturabide garrantzitsuena idazleen eskuetan dagoala.

Gure erria txikia da, bañan erria da, erri osoa; neurritz gizon txikia dan batek gizatasun osoa berekin duan bezela, erri txikiak, berez, erri aundi batek ainbat prolema ba ditu, ta etorkiaz (gure gaurko egokiera onetan bizi galararik) askoz ere aundiagoak. Jendetaz. USA'tarrak gu alako eun dira (berak 200 milloi, gu 2 milloi inguru); gure erriak bere eziera ta kulturako duan presupuestoaren %1 ba gendu!; bañan ez degu ainbestearen %1 ere!; ta gu ere gizonak izaki, ta guk ere gizartean aurrera egin nai; orregatik, zenbat eta al-izate, kemen, gutxiago, orduan eta asmagai aundiagoaren bearra.

Orduan, ba, gure asma-bideak eta antolabideak txorrotxago eratu bearko ditugu.

Gure prolema

Juan San Martin'ek (*Escritores Euskéricos*. Editorial La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao. 1968), euskerazko idazleak (aurtengo gizaldian jaioak eta 1940'garren urtea ezkeroko il diranak muga bezela artura) 150 bat batu ditu, izparringi ta aldizkarietan noizean bein idazten dutenak eta danera jota, 600 bat gerala dio. San Martin'ek bere liburu ongarrian bildu dituan idazle izen oietatik illak kendu ta gaur moldetan agertzen dan euskera idazten degunak ez gera 500 izango.

Ez da gauz aundia. Bi milloi biztanle gera, gutxi-gora-bera; oietatik 600.000 inguru euskeraz dakigunak (ez itz egiten degunak!), eta oietatik 500 periodista ta idazle izatea ez da asko; obeto egin genezake, noski!; bañan alaxe gera, ta dagoanetik, eta ez ametsetatik, ekin bear.

Eta geran pixka oiek: nola ari gera lanean?

Bakoitza berean, noski. Bear ere ala baita; sortzaillearen, kreatzaillearen lana, bakarreko egin-bearra izaten da; ixillekoa, ta geienetan bakardadekoa; idazle danak ba daki ori ondo asko. Ala da ba: ta ezin dira nobelak eta olerkiak eta ipuiak eta biografiak eta antzerkiak ekipuan idatzi? Bañan erriko tximini-txuriz jantzitako buru oiei ere kemenak pixka bat grodetzeak ez die kalterik ekarriko; ez da lotuko dituen erakorik, organizaziorik, bear, ez orixe!, bañan alperrikakoan aritzekoaren kalteak saiezen ikasi bear genduke, ez gure onerako bakarrik, baita erriari zor dioguna ordaintzeko ere.

Len aitaturako liburu orretan San Martin'ek dion bezela: *Macbeth* inglanderatik T. Alzaga'k eta B. Larrakoetxea'k, batean eta alkar ez zekitela, euskeratzeko lan bera egin zuten; *Hamlet*, berriz, Amezaga'tar Bingen'ek eta Larrekoetxea'k berak; *Eneida*: Etxeberría'tar Patxi josulagunak eta Aita Onaindia'k (S.); ta *The Cask of Amontillado*, Basterretxea'tar J.'ak eta Mirandé'tar Jon'ek. Ara gizon oiek, gure erri txikiak berez gutxita dituen gizon jakintsu oiek, lan sakon eta gogorrean alper-alperrik aritu.

Gure erriak ezin du orrelako bonbonkada ta galera asko iraun!

Bañan, bestalde, nola egillearen askatasun eta bakartasun bear ori ta erakunde baten bearra bateratu?

Soluzio-bide bat

Orri onetan bertan arkituko du idazleak lauko, kuadro, bat; or dauzka berari egiten zaizkion iru galdera.

Jasotzen dan argitasunaren bidez Euskaltzaindia'k asita daukan egille-fitxeroa aberastuko degu; gero, idazleak lan berri bateri ekin aurretik jakin nai dutena jakiteko bidea eskeiñiko zaie aldizkari onetan, batez ere itzulpen lanetan eta pedagogi gaietan bi egille lan berean aritzeen kalteak txiri egiteko; ta onela, gañera, gure erriko kultura-lanak nola dijoazen ikasi nai duan guziarentzat ikas-bide jakingarri bat izango da.

Oztopoak

Ba dakit lan onek ondoreak ez dituala gure gaitz guziak uxatuko; ezta gutxiagorik ere. Ta ba dakit aurretik, berri-bilduketa onek bere zailtasunak izango dituala ere.

Idazleak, batez ere sortzailleak (esan bezela) bakarrik lan egiten du, ta askotan beste iñork jakitea nai ez duan lan-bide batean ari da. Alaxe gertatu liteke idazten ari dan nobela baten gaiarekin edo beste lan mota bateko gaiarekin ere; izango dira berea errex esango dutenak; baita, ala ere, esan baño esan gabe geratu naiago duan pranko.

Emen bi eretako lanak bereiztu nai ditut: *Imajinazio* lanak batetik, eta *itzulpen* eta *pedagogi* lanak batez ere bestetik.

Imaginazio lanak (ipui, olerti, nobela, antzerki) ez du arrixkorik: iñork ez du esan bear zer gaietan eta zer estiloko lanetan ari dan, naikoa da nobela bat edo ipui-liburu bat gertatzen ari dala esatea. Egillearentzat erreza, ta fitxero onetarako naikoa da.

Itzulpen lanak gaiak bai, jakin bear dira; egilleari berari ere, esan bezela, komeni zaio, noski; bi lanak, edo iru lanak, berdintasunak izango lirake, eta bietatik, edo iruetatik, bat besterik ez litzake bear. *Pedagogi* liburuekin ere berdin gertatzen da; norbait jeometri bat euskeraz egite ari ba da, ez ditezela beste bi edo iru idazle lan beraren nekean sartu; bear ba da, aurrena lanari ekin diona ez da egille onena izango, ta arrixko au betikoa izango degu; bañan gaurko gure pedagogi-textoen larri-gorrian dagon erriak ezin du bururik eta gogorik alperrik galdu. Ta, gañera, bi edo iru egille jeometri liburu ori gertatzeko asmotan ba dira, alkar ikusi ta aurreratuen edo ondoen lanean ari danari utziko lieteke bidea, nik uste, orrelako lanarik iñoreri uzteak ez dakar kalterik-eta!

Ara ba emen gure asmoak erakutsi. Datozela beste idazleenak ere, alor au ez da bereziki iñorrena-ta; gure erriaren kultura danok osatuko degun zerbait baita.

Batetik edo bestetik, edo alde guzietatik batera, jo genezake; bañan ezin gera iñolaz ere gaurko estuasun onetan alperrik lanean ari.